



EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETAK

XEDAPEN OROKORRAK

62. artikulua.- EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETAK Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren (ETx) jabetza eskusibokoak dira.

63. artikulua.- Agiri honek Araudiaren Xedapen Orokorrak osatzen ditu – ETx-ren Errepide Probak.

EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETETARAKO espresuki jasotakoa salbu, kategoria edo sexu bakoitzeko txapelketan edo sarian ezarritakoaren arabera arautuko dira txapelketak.

Emakumeentzako Euskadiko Errepideko Txapelketak – Linea ez ezik, EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETAK ez dira puntuagarriak izango inolako txapelketetan edo saritan.

I. GENERO BIETAKO KADETE, JUNIOR, 23 URTEZ AZPIKO ETA ELITE

PARTE HARTZEA

64. artikulua.- EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETATAN parte har dezakete ETx-k edo Nafarroako Txirrindularitza Federazioak igorritako lehiaketa-lizentzia duten Espainiako txirrindulari guztiek, eta baita ere Ipar Euskal Herrian bizi diren eta Frantziako Txirrindularitza Federazioak igorritako lizentzia duten Espainiako edo Frantziako txirrindulariek.

EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETA: ELITE ETA 23 URTEZ AZPIKOAK

- Elite eta 23 urtez azpiko kategorietako txirrindulariek batera parte hartuko dute proba bakarrean.
- Bi titulu bereiziko dira, eta, ondorioz, bi sailkapen ere bai: Elite kategoriako txirrindulariak, batetik, eta 23 urtez azpiko kategoriakoak, bestetik.
- Autoen ordena zozketa bidez ezarriko da.
- Ez da adin-mugarik egongo Elite kategoriako txirrindularien kasuan.
- Talde bakoitzak nahi adina txirrindulari izan ditzake.

EUSKADIKO ERREPIDEKO EMAKUME TXAPELKETA

Errepidean:

- Hemen adierazitakoez bestelako federazioetako lizentzia duten taldeek eta/edo txirrindulariek parte har dezakete. Dena den, txirrindulari horiek ezingo dute Euskadiko Txapelketetako titulua jaso.
- Bi titulu bereiziko dira, eta, ondorioz, bi sailkapen ere bai: 23 urte edo gehiago dituzten txirrindulariak (Elite), batetik, eta 19 eta 22 urteen bitarteko txirrindulariak (23 urtez azpikoak), bestetik.

Erlojupeko indibiduala:

- Hemen adierazitakoez bestelako federazioetako lizentzia duten txirrindulariek parte har dezakete, Euskadiko eta Nafarroako taldeetakoak badira. Dena den, txirrindulari horiek ezingo dute Euskadiko Txapelketetako titulua jaso.
- Euskadiko Txapeldunen maillot bana emango zaie 23 urteko edo gehiagoko lehenengo sailkatuari (Elite), eta 19 eta 22 urte arteko lehenengo sailkatuari (23 urtez azpikoak). Lehenengo sailkatua 23 urtez azpikoa denean, Elite kategoriako lehen txirrindulariak ez du maillotik jasoko.

EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETAK: KADETE ETA JUNIOR

- Aipatutako lurralde-eremuan bizi diren txirrindulariek Txapelketan parte hartu eta Euskadiko txapeldun titulua jaso dezakete, nazionalitate espainiarra edo frantsesa eduki ez arren.
- Kadete kategorian bi Txapelketa egingo dira, data eta leku ezberdinetan: bata lehenengo urteko Kadete kategorian (15 urte), eta bestea, bigarren urteko Kadete kategorian (16 urte).

Erlojupeko indibidualetan, ETx-ko Kirol Saileko zuzendariak beraren Lurralde Federazioak hautatu gabeko hiru (3) txirrindulari aukera ditzake. Txirrindulari horiek Euskadiko txapeldun titulua jaso dezakete.



PARTE HARTZE TAULA, DIZIPLINEN, GENEROEN ETA KATEGORIEN ARABERA

KATEGORIA	DIZIPLINA		DIETAK
GIZONAK	LINEA	ERLOJUPEKO INDIBIDUALA	
Elite	Parte-hartze askea	—————	100 x 18 €
23 urtez azpikoa	Parte-hartze askea	Lurralde Federazio bakoitzeko 6	100 x 18 €
Junior	Parte-hartze askea	Lurralde Federazio bakoitzeko 5	50 x 10 €
Kadetea	Parte-hartze askea		50 x 5 €
EMAKUMEAK			
Elite – 23 urtez azpikoa	Parte-hartze askea	Parte-hartze askea	18 € (EI)
Junior	Parte-hartze askea	Parte-hartze askea	10 € (EI)
Kadetea	Parte-hartze askea	(Lasterketa kenduta)	5 € (EI)

OHARRA: Emakumezko Euskadiko Lineaz Txapelketetan, sariak Euskaldun Txapelketan bezela



II. EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN MASTER 30, 40, 50, 60

XEDAPEN KOMUNAK: LINEA ETA ERLOJUPEKO INDIBIDUALA

65. artikulua.- Agiri honetan datozen xedapen partikularrez gain, EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETEK, Master 30, 40, 50 eta 60 —Scratch emakumezkoak— kategorietan, Espainiako Txirrindulari Errege Federazioko Araudi Teknikoetan ezarritakoa bete beharko dute.

Guztiz debekatuta dago txirrindulari parte-hartzaileei saria eskudirutan ematea. Txapeldunen maillotak, sariak eta/edo dominak bakarrik jasotzeko eskubidea izango dute soilik, hala badagokio eta hemen jasotako baldintzetan betiere.

EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETEN BANAKETA

Kategoria hauetan banatzen dira:

- **Master 30:** txirrindulari hauen lizentzietan *Master 30* kategoria ageri da
- **Master 40:** txirrindulari hauen lizentzietan *Master 40* kategoria ageri da
- **Master 50:** txirrindulari hauen lizentzietan *Master 50* kategoria ageri da
- **Master 60:** txirrindulari hauen lizentzietan *Master 60* kategoria ageri da
- **Scratch emakumeak:** txirrindulari hauen lizentzietan *Master 30, 40, 50* edo *60* kategoriak ageri dira

EUSKADIKO TXAPELDUNAK

Lehen adierazitako kategoria bakoitzean, Euskadiko Errepide Txapelketako txapeldun-titulua jaso ahal izateko, txirrindulariek espainiar nazionalitatea eta Euskadiko Txirrindularitza Federazioak edo Nafarroako Txirrindularitza Federazioak igorritako lehiaketa-lizentzia eduki behar dituzte. Horiez gain, Ipar Euskal Herrian bizi diren eta espainiar edo frantses nazionalitatea dutenek ere txapeldun-titulua jaso dezakete, baldin eta Frantziako Txirrindularitza Federazioak igorritako lizentzia badute. Kasu guztietan, txirrindulariaren bizilekua lizentzian jasotzen den helbidea dela iritziko zaio.

PARTE HARTZEKO ETA IZENA EMATEKO BALDINTZAK

Aurreko paragrafoan adierazitako txirrindulariez gain, Nazioarteko Txirrindularitza Batasunaren barruko edozein federaziok igorritako lizentzia duten txirrindulariek ere parte har dezakete EUSKADIKO ERREPIDE TXAPELKETETAN, baina EZ DUTE txapeldun-titulurik jasoko.

ZENBAKIAK

Tokiko Batzorde Antolatzaileak banatuko ditu zenbakiak txirrindularien artean.

SAILKAPENAK

Kategoria bakoitzean, proba arauzko denboran amaitzen duten txirrindulari guztien sailkapen bateratua egingo da. Horrela, II. kapituluko 3. izenburuan ezarritako baldintzak betetzen dituzten txirrindularien artean, lehenengo postuan sailkatzen dena Euskadiko Errepide Txapelketako irabazlea izango da, dagokion kategorian.

Kategoria guztietan —Scratch emakumezkoak barne—, II. kapituluko 3. izenburuan ezarritako baldintzak betetzen dituzten 3 (hiru) txirrindulari egon beharko dira gutxienez; hala ez balitz, 2012ko Euskadiko txapeldun titulua hutsik geratuko da.

ERLOJUPEKO INDIBIDUALA

Irteera-ordena

Parte-hartzaileen irteera-ordena zozketa bidez ezarriko da, kategoria bakoitzean.

Txirrindulariak minutu bateko tartearekin aterako dira, eta berdin jardungo da serie bereko parte-hartzaile guztiekin.

Bizikletak

Nazioarteko Txirrindularitza Batasunaren Txirrindularitza Araudiaren III. kapituluan ezarritako xedapenak bete beharko dituzte.



Irteera-ordua baino hamabost minutu lehenago, txirrindulari bakoitzak irteera-epailearengana joan beharko du bere bizikletarekin batera, egiaztatzeko Nazioarteko Txirrindularitza Batasunaren Txirrindularitza Araudiaren 2.4.010. artikuluan ezarritakoak betetzen dituela.

Errepideko txirrindulariak

Aurretik doan txirrindularia harrapatu eta haren parean jartzen bada, beste txirrindulariarekin gutxienez 2 metroko distantzia utzi beharko du alboetara.

Kilometro bat pasata, harrapatua izan den txirrindulariak bestearen atzetik joan beharko du, eta 25 metroko tartea utziko du gutxienez.

Laguntza-autoak

Laguntza-autoak txirrindulariarekin joan ahal izateko, auto barruan kirol-zuzendari edo monitore lizentzia duen taldekide bat joan beharko da.

Autoa txirrindulariaren atzetik joango da, gutxienez 10 metroko tartea utzita. Ezingo dio inoiz aurre hartu, ezta parean jarri ere. Matxurarik balego, geldirik dagoela bakarrik lagun diezaioke, eta beste txirrindulari edo auto bati bidea oztopatzen ez diola zainduko du.

Harrapatua izango den txirrindulariaren laguntza-autoa beste txirrindulariaren autoaren atzetik joango da, bi txirrindularien arteko distantzia 100 metrotik beherakoa denean.

Txirrindulari bat harrapatu duen txirrindulariaren laguntza-autoa ezin da bi kirolarien artean joan, bien artean 50 metroko tartea ez badago gutxienez. Tarte hori txikitzen bada, ordura arte denborarik onena izan duen txirrindulariaren autoa bigarren txirrindulariaren atzean jarriko da eta beste autoaren aurrean.



CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 62.- Los CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA, son propiedad exclusiva de la Euskadiko Txirrindularitza Federazioa (ETx F).

Artículo 63.- El presente capítulo completa las Disposiciones Generales del Reglamento - Pruebas en Ruta, de la ETx F.

A excepción de lo dispuesto expresamente para los CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA, las competiciones se regirán por analogía a lo dispuesto en el respectivo Torneo o Trofeo de cada categoría o género.

A excepción de los Campeonatos de Euskadi en Ruta – Línea, para mujeres, los CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA no serán puntuables para Torneo o Trofeo alguno.

I. CADETE, JUNIOR, SUB-23 Y ELITE DE AMBOS GÉNEROS

PARTICIPACIÓN

Artículo 64.- Los CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA están reservados a la participación de todos los corredores de nacionalidad española con licencia de competición expedida por la ETx F o por la Federación Navarra de Ciclismo y aquellos corredores de nacionalidad española o francesa con residencia en Ipar Euskal Herria y licencia expedida por la Federación Francesa de Ciclismo.

CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA – LÍNEA: ELITE Y SUB-23

- Los corredores de las categorías Elite y Sub-23 participarán conjuntamente en una misma prueba.
- Se establecerán dos títulos diferenciados –y por consiguiente, dos clasificaciones independientes- para los corredores Elite de una parte, y por otra para los corredores Sub-23.
- El Orden de Coches se establecerá por sorteo.
- No existirá limitación alguna por razón de edad de los corredores licenciados Elite.
- No existirá limitación alguna por razón del número de corredores participantes por equipo.

CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA – MUJERES

Línea:

- Podrán tomar parte equipos y/o corredoras licenciados por distintas Federaciones a las aquí señaladas. Sin embargo, dichas corredoras no tendrán opción a los títulos de Campeonas de Euskadi.
- Se establecerán dos títulos diferenciados –y por consiguiente, dos clasificaciones independientes- para las corredoras de 23 ó más años (Elite) de una parte, y por otra para las corredoras de 19 a 22 años (Sub-23).

Contra-reloj Individual:

- Podrán tomar parte corredoras licenciadas por distintas Federaciones a las aquí señaladas que pertenezcan a equipos vasco-navarros. Sin embargo, dichas corredoras no tendrán opción a los títulos de Campeonas de Euskadi.
- Se entregarán sendos maillots de Campeonas de Euskadi a la primera corredora clasificada de 23 ó más años (Elite), y a la primera corredora clasificada de 19 a 22 años (Sub-23). En el caso de que la primera corredora clasificada sea Sub-23, no será entregado maillot alguno a la primera corredora Elite.

CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA: CADETE Y JUNIOR

- Los corredores de ambos géneros, con residencia en el ámbito territorial antedicho y que no dispongan de nacionalidad española o francesa, podrán tomar parte igualmente y tendrán opción a los respectivos títulos de Campeones de Euskadi.
- En la categoría Cadete se disputarán sendos Campeonatos en pruebas disputadas en distintas fechas y sedes: uno para Cadete de 1er. Año (15 años), y otro para Cadete de 2º Año (16 años).

En las pruebas Contra-reloj Individual, el Director del Area Deportiva la ETx F, podrá seleccionar además a otros tres (3) corredores no seleccionados por su Federación Territorial. Dichos corredores tendrán opción a los títulos de Campeón de Euskadi.



CUADRO DE PARTICIPACIÓN POR DISCIPLINAS, GÉNERO Y CATEGORÍAS

CATEGORIA	DISCIPLINA		DIETAS
	LÍNEA	CONTRA RELOJ INDIVIDUAL	
HOMBRES			
Elites	Libre participación	—————	100 x 18 €
Sub-23	Libre participación	6 por Federación Territorial	100 x 18 €
Junior	Libre participación	5 por Federación Territorial	50 x 10 €
Cadete	Libre participación		50 x 5 €
MUJERES			
Elites – Sub 23	Libre participación	Libre participación	18 € (CRI)
Junior	Libre participación	Libre participación	10 € (CRI)
Cadete	Libre participación		5 € (CRI)

NOTA: En Campeonatos de Euskadi en Línea – Mujeres, mismos premios que en Torneo Euskaldun



II. MASTER 30, 40, 50 Y 60 DE AMBOS GÉNEROS

DISPOSICIONES COMUNES: LÍNEA Y CONTRA-RELOJ INDIVIDUAL

Artículo 65.- A excepción de las disposiciones particulares contenidas en el presente documento, los CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA, para las categorías Master 30, 40, 50 y 60 - Mujeres Scratch - se regirán por analogía a lo dispuesto en los Reglamentos Técnicos de la Real Federación Española de Ciclismo (RFEC)

Queda totalmente prohibida la atribución de premio en metálico alguno a los corredores participantes. Acaso, y en las condiciones aquí expuestas, únicamente tendrán derecho a los maillots de Campeones, trofeos y/o medallas.

DISTRIBUCION DE CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA

Se distribuyen por categorías de la siguiente manera:

- **Master 30:** corredores en cuyas licencias figure la categoría *Master 30*
- **Master 40:** corredores en cuyas licencias figure la categoría *Master 40*
- **Master 50:** corredores en cuyas licencias figure la categoría *Master 50*
- **Master 60:** corredores en cuyas licencias figure la categoría *Master 60*
- **Mujeres Scratch:** corredoras en cuyas licencias figure la categoría *Master 30, 40, 50 ó 60*

CAMPEONES DE EUSKADI

Los títulos de Campeón de Euskadi en Ruta, para cada una de las antedichas categorías, están reservados exclusivamente a aquellos corredores de nacionalidad española con licencia de competición expedida por la ETxF o por la Federación Navarra de Ciclismo, y aquellos corredores de nacionalidad española o francesa con residencia en Ipar Euskal Herria y licencia expedida por la Federación Francesa de Ciclismo, entendiéndose por residencia aquélla que figure en su licencia.

CONDICIONES DE PARTICIPACION E INSCRIPCION

Además de los corredores señalados en el párrafo precedente, en los CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA podrán tomar parte corredores con licencia extendida por cualquier federación afiliada a la Unión Ciclista Internacional, los cuales NO OPTARAN a ninguno de los títulos de Campeón de Euskadi en Ruta.

DORSALES

Los dorsales a utilizar por los corredores serán facilitados por el Comité Organizador Local.

CLASIFICACIONES

En cada categoría, se establecerá una clasificación conjunta de todos los corredores -sea cual fuere su federación de origen- que concluyan la prueba en el plazo de tiempo fijado reglamentariamente; resultando que el primer corredor clasificado de entre aquellos que cumplan con los requisitos establecidos en el Título 3 del presente capítulo II, devendrá Campeón de Euskadi en Ruta de su categoría.

En todas aquellas categorías -Mujeres Scratch inclusive- en las que no se alcance el número mínimo de 3 (tres) corredores participantes que cumplan con los requisitos establecidos en el Título 3 del presente capítulo II, el título de Campeón de Euskadi quedará desierto.

CONTRA-RELOJ INDIVIDUAL

Orden de Salida

El Orden de Salida de los participantes será establecido por sorteo en cada una de las categorías

Las salidas de cada corredor se efectuarán con intervalos de un minuto, y será igual para todos los participantes de la misma serie.

Bicicletas

Deberán ajustarse a las disposiciones establecidas en el Capítulo III del Reglamento del Deporte Ciclista, de la UCI.



Quince minutos antes de la hora fijada para su salida, cada corredor deberá presentarse provisto de su bicicleta al Juez de Salida para efectuar la verificación de la misma conforme a lo dispuesto en el artículo 2.4.010 del Reglamento del Deporte Ciclista, de la UCI.

Corredores en carrera

El corredor que alcanza a otro debe guardar una separación lateral de, al menos, 2 metros.

Después de 1 Km., el corredor alcanzado debe rodar a, al menos, 25 metros por detrás del otro.

Vehículos seguidores

Para que un vehículo seguidor pueda acompañar al corredor, deberá estar ocupado por una persona licenciada como Director Deportivo / Monitor del club al que pertenezca dicho corredor.

El vehículo seguidor de un corredor deberá situarse a, al menos, 10 metros del corredor. No puede adelantarle nunca, ni tampoco ponerse a su altura. En caso de avería, la asistencia sólo se autoriza en situación de parada y de forma que el vehículo seguidor no impida o dificulte el paso de otro corredor o vehículo.

El vehículo seguidor de un corredor que va a ser alcanzado debe colocarse detrás del coche del otro corredor a partir del momento en que la distancia entre ambos corredores es inferior a 100 metros.

El vehículo que sigue a un corredor que alcanza a otro no puede intercalarse entre los corredores a menos que entre éstos exista una separación de, al menos, 50 metros. Si esta distancia se redujera, el coche del corredor con mejor tiempo registrado hasta ese momento se situará detrás del segundo corredor y delante del otro coche.